



Antxiñako fotografixia



LEHENAGOKO ESKOLATXOKO KANTALA


Laister izango dugu Atzeko-Kalea berriz itxura hauekin ikusteko aukera, hau da, adokinatuta. Mende erdi inguruko argazki honek (1.953.urtea) Eskolatxoko kantalean kokatzen gaitu. Bertan lehengo Eskolatxoko etxe zaharra ageri da, orain bezala orduan ere okindegia zena. Goraxeago, Jose M. Agirrebalzategi abade zenaren gurasoen denda zegoen, bertan denetarik apur bat saltzen zen: janari mota ugari, garbigailuak (eskobak etb), argazki markoak, etb. Bietan ikus dezakegu kanpotik begiratzuz nolakoak ziren lehengo denda modeloak: sarrera berezia, pertsiana haundiak etb. Bestalde, barreneruntz begiratzuz, oraindik zutik dagoen Urrutxu etxea ikus dezakegu.

Argazki honi lotua badago Eskolatxoko armariari buruzko kontu bat: esaten da etxea botatzera zihoazenean Oñatiarren batek armaria erosteko nahia erakutsi zuela. Hasiara batean salgai ez zegoela adierazi arren, azkenean ekinaren ekinez tratua istea lortu zuten. Baina hura sorpresa hartu zutena, armaria harrizkoa izan beharrean igeltszkoa suertatu zenean. Baina jakina da: **TRA-TUA BETI TRATU !**

OHARRA:

Argazki zaharren bat erakutsi nahi izanez gero, LAIXANera ekar dezakezu. Errekalde Herri Eskolan gaituztu, zatoz!

Eskerrak: Andres Arlanzoni argazkia uzteagatik eta Jerardo Elortzari argibideak emateagatik.



OÑATI

Hormigoiak, S.A.

Zubillaga auzoa, z/g (Olano) Tfnoa: 78 29 12
OÑATI

